

Natura nola bizi eremu urbanoko ikastetxeetan

Ados, baso eskolak eta naturaz inguratutako ikastetxeak abagune paregabea dira pedagogia berdearen onurez gozatzeko, baina Euskal Herrian asko dira hiri eta eremu urbanoetan kokatuta, asfalto lagun duten eskolak. Horiek ere, ordea, uste baino gertuago dute bioaniztasuna bertatik bertara lantzeko aukera. Horren lekuko, artikulua bukaeran aurkituko dituzun esperientziak.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Naturatik alden duzue hiriak, berdea erauzi eta porlanaz ordezkatu duzue, gehienez eremu domestikatuetara mugatu, eta aurreko belaunaldiak landaz zuten ezagutzaren transmisioa moztu duzue, hori esan digute elkarrizketatuek. “Urte luzez asfaltorako joera nagusitu da, erosoagoa, lauagoa, garbiagoa... dela iritzita. Orain horri buelta ematen ari gara, ingurumenarekiko sentsibilizazioa gero eta handiagoa da, baina aldi berean tarteko urte horiek guztiek kaltea egin dute: nola konbentzitu herritarrak, berdea zen eta asfaltatu egin duten gune hori berriz berdezteko?”, dio Iñaki Sanz biologo eta irakasleak. Haur ugari dira egunerokoan zelairik zapaltzen ez dutenak, baina jakin badakigu osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina dela natura: motrizitatea, autonomia, autokontrola, oreka, arreta, segurtasuna, norberaren trebezia eta potentzialtasunak, mugak eta interesak modu naturalean garatzeko aliatu ezin hobeak dira lokatza, lurra, zuhaitzak, belarra, hostoak... Naturarekin interakzio zuzena duten haurrak erlaxatuago bizi direla dio Heike Freire psikologoak (*Berdean hezi* liburuaren egileak) eta adimen abstraktua, afektibitatea, gaitasun sozialak, autoestimua,

empatia... garatzeko lagungarri zaiela. Eskoletako curriculumek ere bere gain hartu dute naturarekiko harremana eta ezagutza transmititzeko ardura, baina gaur egun oro har ikasgela barruan egiten da transmisio hori eta kontzeptu asko eman arren, ikasleari abstraktuak egiten zaizkio, ez dituztelako errealitatean ikusten, ukitzen, usaintzen, probatzen, ikertzen eta esploratzen.

Soluzioa, lorategi edo espazio berderik ez duten ikastetxeentzat, gertu dituzten hiriko parke eta gune berdeak erabiltzea da, Iñaki Sanzentzat eta Maialen Sistiaga eta Irati Andoño Kutxa Ekoguneko baso eskolako hezitzaileentzat. Gakoa litzateke, Europa iparraldeko hainbat herrialdetan egiten den moduan, Udalarekin akordioak lortu eta parkearen kudeaketan hezkuntzaren ikuspegia txertatzea; hala, parkearen zati bat helburu hezitzaileetara bideratuz gero, belarra moztu gabe basati eta natural hazten utzi daiteke adibidez, eta bertako flora eta fauna mantendu. “Beti dago inguruan horma zaharren bat, huntzaz eta orbelaz betea, sugandilak bueltaka dituela. Edo larreraren bat bere horretan, basalandareekin... Baliabide horiek aprobetxatu ditzakegu”, dio Sistiagak. Azken finean, mendira joatea ez





*Ordiziako ikastetxeek
Natur Eskola abiatu dute aurten,
herriko Oiangu parkean.
ARGAZKIA: UXUE URZELAI*

du ahalbidetzen hezkuntza sistemak, urtean behin egiten den txangoan ez bada: Natura ikasgaiak ordubeteko iraupena du, eduki asko eman behar dira eta 30 ikasleko gela ezin duzu egunerokoan urrutira mobilizatu, bai ordea ondoko parkera. “Txangoa eta parkea osagarriak izan daitezke: Aiako Harritara joaten bazara, habitat eta bioaniztasun handiagoa ikusiko dituzu, baina momentu horretan nola dagoen baino ez duzu ikusiko, eta egunerokotasunak ematen dizu eboluzioa ikusteko aukera: loreak nola doazen aldatzen, urtaroak, egunetan edo egunean bertan zehar naturak duen bilakaera...”, azaldu digu Sanzek. Eskolan bertan konposta egitea, baratzea, oilategia edo negutegia jartzea, txoriak erakartzeko patioan haienezako bazkalekuak eraikitzea edota putzuak mantentzea, adarrekin zomorrontzako etxetxoak sortu eta zerbeza botatzea (xomorroak etorrarazteko), lorontziak jarri edo loreak landatzea... natura ikastetxera gerturatzeko modu errazak direla kontatu digute Sistiagak eta Andoñok, baina aukera artifiziala direla: “Inoiz ez da izango mendira joatea bezala, edo ikastetxeko lau paretatik atera eta inguruko naturagunera hurbiltzea bezala”.

Egur hila, basoko supermerkatua

Ikuspegi hezitzailetik parke urbanoak zer eduki beharko lukeen galdetu diegu elkarrizketarekiko. Gutxienez, diote, larre bat, bere horretan hazten utzia eta etengabe moztzen aritu gabe, bertako loreekin. Zuhaitzak eta zuhaitzetatik eroritako enborrak, egur hilak, aproposak dira baita ere, egur hila delako basoko supermerkatua: xomorro pila bat erakartzen ditu, baita onddoak ere. Eta hortik aurrera, elikadura-katean gora egin ahala, gainerako bizidunak agertzen hasiko dira. Hondarra bera ere baliabide aproposa da eta kostalde eder askoa dugu Euskal Herrian, hondartzak eta arrokak. “Onena litzateke hiri barnean egotea parke bat ahal den heinean inguruko gune berdeekin konektatua, eraztun bioanizta izatea eta ez irla bat, baita ibilbide edo korridoreren bat diseinatzea ere, eta ikastetxetik bertatik bada, are hobeto. Bertako espezieak mantentzen dituzten habitat ezberdin ugari baditu, primeran: urmaela, erre-kasto txikia, basotxo bat, zelaiak... Eta horrelako parkeak egon badaude”, ziurtatu du Iñaki Sanzek. Kontua da, planteatu al

» Planteatu al dugu hirietako parke publikoak erreminta egokia direla inguruko eskolek baliatzeko? Zenbat eta kontzienteago izan eta parkeak hobeto diseinatu, orduan eta bideragarriagoa izango da helburu hezitzaileekin erabiltzea

» **IÑAKI SANZ, BIOLOGOA:** “Mendira urtean behin joango gara eskolarekin. Ondoko parkeak, egunerokoak, ematen dizu eboluzioa ikusteko aukera: loreak nola doazen aldatzen, urtaroak, egunean zehar naturak duen bilakaera...”

» Ekoguneko baso eskolan, arropa berezia daramate haurrek, arrantzaleek jantzi ohi dituzten buzoen modukoak, egiten duen eguraldia egiten duela kanpoan eroso aritzeko

» Jolas-parke basatiagoetan, rolak nahasten dira, sormena piztu, joko indibidual eta bideratuak alboratu... Hori bai, “umea gehiago zikinduko da. Merezi du? Ba agian bai”

dugu noizbait hirietako parke publikoak erreminta egokia direla inguruko eskolek baliatzeko? Sarri, parkeak paseatzeko eta aisialdirako gune baino ez direla iruditzen zaigu, eta ikuspegi apur bat zabaltzea da koska, diote elkarrizketarekiko: zenbat eta kontzienteago izan eta zenbat eta egokiago diseinatu parkeak, orduan eta bideragarriagoa izango da helburu hezitzaileekin ere erabiltzea.

“Guraso eta irakasleek jakin-mina izan badute, eta ateratzeko gogoia ere bai, baina sarri atera eta gero ez dakigu aurrean daukaguna zer den, ez ditugu landare eta zuhaitzak ezagutzen, zein txori mota den, ahatea ala lertxuna den... eta horrek segurtasun falta handia sortzen digu helduoi”, diote Sistiagak eta Andoñok. Irakasleak formatzea da lehen urratsa, eta horretarako ikastaroak ematen ditu Ekogunek.

Beste kezka bat ere aipatu digu Sanzek: lorategi eredu gestioa. Edo beste era batera esanda, behin eta berriz belarra moztzen eta loreak aldatzen aritzea. “Parkeko gune batean bertako loreak hazten utziz gero, udaberri osorako belaze koloretsua izango duzu, baina ez dakit zenbateraino apreziatzen dugun hori. Estetikarekin zer ulertzen dugun, hor dago funtsa: iruditzen zaigu horma zaharrak bota eta berriak egin behar ditugula, baina niri horma zahar bat, goroldioa eta zintzilik belarrak dituela estetikoki zoragarria iruditzen zait. Estetikaren lerro oso markatua daukagu, ordena oinarri, eta eskema horretatik ateratzen dena iruditzen zaigu kaosa eta zikina. Txipa aldatzea litzateke”.

Eta euria ari badu?

Kanpora ateratzeko Euskal Herriko klima muga izan daitekeela uste duenarentzat, bere esperientzia kontatu digu Sanzek. Landareak ikasi berri dituzte eta horretarako ikasleak ondoko zelaira eraman ditu hiru astez jarraian, asteen hiru bat aldiz: “Ikasleei esan nien, ‘gutxienezko eskatuko dizuet, ekarri aterkia, xira eta izan hemen aldatzeko galtzerdi eta zapatilak’. Ez dugu inongo arazorik izan. Dinamika hori sortzea eta Gorputz Heziketarako bezala arropa egokia ekartzea besterik ez da”. Europa iparraldeko ikastetxe ugarietan ohikoa omen da: barrutik kanporako (eta kanpotik berriz barrura sartzeko) trantsizio guneak dituzte, eta bertan, besteak beste, katiuskak eta eguraldi trantsizio aurre egiteko jantzi proposak.

Ekogunean abiatu duten baso eskolarako ere, arropa berezia eraman dute haurrek, arrantzaleek jantzi ohi dituzten buzoen modukoak, egiten duen eguraldia egiten duela kanpoan eroso aritu ahal izateko. “Gainera, eguraldi ‘txarra’ ikasketa-prozesu izugarria da umeentzat: putzu bat deskubritzea, euripean jolastea...”, nabarmendu digu Sistiagak.

Ezustean, zirauna

Gelan landutakoa benetan ikustea, naturako gaiak naturan lantzea; hain xede sinplea, baina maiz hain ezohikoa. Hortik aurrera, bestelako gaiak ere jorratu daitezke naturaguneetan. “Oinarrizko kontzeptuak irakastea erraza da, baina bertatik bertara bizi badituzu askoz aberasgarriagoa da emaitza –dio Sanzek–. Landareak landu ditugu, eta ezberdintasun handia egon da aurkezpena gelan egin dutenen eta lorategian egin dutenen artean: ikasgelan, loreen zatiei buruz hitz egiten aritu dira, aurrean lorerik izan gabe, eta orokorrean ez da ulertu, ez dute barnerratu. Lorategi-koen aurkezpena askoz praktikoagoa izan da, batere abstraktua”. Inguruak berak ere eragiten du klasean: loretik marrubia ateratzen ikusi dute, “eta tontakeria dirudi, baina ikasle bati behin esan nion tomatea loretik ateratzen zela, eta zur eta lur geratu zen; apustu egingo nuke ez dela bakarra”. Aurrekoan, zirauna agertu zitzaizkien lorategian, klasea moztu eta zirau-naz aritzeko aprobetxatu zuten. “Adi-adi egon ziren denak, eta gelan ikasia genuen zirauna, baina ziur naiz lorategiko esperientzia eta gero ez zaiela ahaztuko hitz egin genuena. Azken finean, jakin-mina sortzeko aproposak dira errealitatera bidaiatu hauek; beharbada ez dituzu eduki guztiak emango, baina gaiarekiko interesa sortu baduzu, bide handia duzu egina”.



Jolas-parke natural eta askea diseinatu dute haur eta helduek New Yorken: playgroundNYC.

Izan ere, ez da gauza bera orduak arbelari begira eserita ematea, edo zelaian jardutea. Lorategira ateratzen hasi zirenean, ikasleak aztoratuta joaten zirela kontatu digu Iñaki Sanzek, berria baitzen haien tzat, eta irakasleentzat ere deserosoa izan daiteke eguneroko kontrol eremutik ateratzea, baina kanpora egun gehiagotan jo ahala, irakasle eta ikasleak halako guneetan normaltasun osoz eta lasai mugitzeko ohitura hartzen joan dira.

Jarri enbor pare bat hiriko jolas-parkean

Eskolaz kanpoko orduetan ere, jakina, asko egin daiteke, eta hirietako jolas-parke uniforme, gris, gatzgabeak eraldatzea urrats inportantea litzateke. Auzoetan bestelako jolas-parke berdeagoak eta askeagoak aldarrikatzen dituen mugimendurik bada jada. Elkarrizketatuen esanetan, kulunka bezain dibertigarria izan daiteke egur hil bat eta adituen arabera zuhaitzera igotzeko prozesua hezkuntza-prozesu perfektua da haurrentzat,

adrenalina, erronka, oreka eta koordinazioa tarteko. Jarri enbor pare bat, lurra erliebe ezberdinetan, eta jolas-dinamika erabat aldatuko da, diote, baita natur-baliabideak neutroak direlako ere; naturan ez daude neskontzako eta mutilentzako jostailuak: rolak nahasten dira, sormena piztu, joko indibidual eta bideratuak alboratu... Hori bai, “umea gehiago zikinduko da –gogoratu du Sanzek–, eta guraso bezala planteatu beharko duzu: merezi dizu? Ba agian bai, hain gustura dago umea, bestelako interakzio eta jolas batzuk probatzen”.

Mezu bateratua dute elkarrizketatuek: eskola ez dadila izan inguruarekiko isolatuta dagoen irla, izan daitezela kanpoaldea eta ingurunea ere ikasgela, eta ingurune horrek izan dezala berdetik. Maialen Sistiagak argi du: “Trantsizioa helduok behar dugu, haurrak segituan moldatzen dira”.

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
RiO Arga Kalea 28, 31014 Iruña
lua@luark.com

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA MASTERRA

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREK DITUGU

www.gezki.eus

UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua

GEZKI

Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social de la UPV/EHU

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Esperientzia berdeak



Tokioko Fuji Kindergarten haureskolan, umeak eskalatzu sartzan dira ikasgelan.

Adibide gehiegi ez daudela aipatu digute elkarrizketatuek, eta daudenean, sari irakasleen apustu pertsonalak direla. Eredu batzuk bildu ditugu eta horretarako, elkarrizketatuez gain arkitektura eta diseinua oinarri dituen Tipitik taldeko Ane Abarrategi eta Manuela Abasolok lagundu digute.

ESKOLAKO PATIOA ERALDATZEN

Ikastetxeak berak zelaia, naturgunea edo lorategia izatea altxorra da, eta horren jakitun, eskola batek baino gehiagok abiatu du jolastokia eraldatzeko proiekturen bat. Durangoko Kurutzia-ga ikastolan, esaterako, patioa aztertu eta berritzeko proposamenak haurrek euren egin dituzte marrazki bidez, eta ikasleen lanetan argi ikusi dute guraso eta irakasleek: “Berdea da nagusi”. Zuhaitzetara igotzeko sokak, zubi tibetarrak, ortua... eskatu dituzte eta norabide horretan berritu dute patioa. Behin naturgunea lortuta, jolasteko, ikertzeko eta ikasketa prozesuarekin lotzeko aprobeztatu ohi dute eskolek: Donostiako La Anunciatan lorategiko zuhaitzak eta hostoak identifikatzeko Trivial jolasa sortu dute; Irungo El Pilarren hegaztientzat jantokiak eraiki dituzte ikastetxeko lorategian...

EREÑOTZUN, ARBELAREN ORDEZ PUTZUA

Alemanian, ikastetxe batzuek ohitura daukate inguruko hezeguneren baten ardura hartu eta ikasgaiak lantzeko bertara mugitzeko. Ideia horri tiraka ekimen interesgarria sortu zuten Hernaniko Ereñotzu auzoko Txirrita eskola txikian, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean: garai batean putzu izandakoa baina denborarekin galdutakoa berreskuratu zuten 2013-14 ikasturtean, zonaldea inpermeabilizatuz eta egokituz. Zepadi putzua birsortzea lortu zuten, orain gune babes-tua, eta urtebetean landare urtarrak eta anfibio ugari agertu ziren. Putzua baliabide ezin hobea bihurtu zen curriculumeko gaiak jorrazteko: Matematikak landu behar zituztela? Igelen arrautza kopurua edo putzuaren azalera zizutzen horretarako; beroaren eraginez putzua murriztu zela eta baso-igel gorriek arrautzak bertan jartzeari utzi ziotela? Aldaketa klimatikoaz aritzeko adibide paregabea zuten; eta kartografia, toponimia, animalien metamorfosia... jorrazteko ere baliagarria izan zitzaizen. Ziraba proiektuak unitate didaktiko baterako eman zuen eta gaur egun oraindik lotura mantentzen dute ikasleek putzuarekin:



Zepadi putzua, Ereñotzun.

XABIER RUBIO

gurasoek txangoak eta ekintzak antolatzen dituzte bertan.

NATUR ESKOLA OIANGUN

Ordiziako Oiangu parkea golf-zelai bihurtzeko proiektu polemikoa bertan behera geratu ostean, gune berdeari beste erabilera bat ematea erabaki dute. Aranzadiren ekimenez eta Udalak finantzatuta, herriko bi ikastetxeek baliatu dute ikasturte honetan lehenengo aldiz, Natur Eskola gisa. 10-12 urteko ikasleak aritu dira bertan naturarekiko harremana lantzen eta hainbat gai jorrazten. “Natura bizitzea eta harreman positiboa sortzea bera bada helburu eta lorpen-dio Yoana Garcia ekimenaren bultzatza-

tzailleak-. Orain asmoa da adin gehiagotara zabaltzea eta irakasleek jarrera baikorra eta borondatea agertuz gero, maiztasuna ere areagotzea, edukiak aire librean lantzeko”.

OÑATIKO PARKEA HOBETZEKO GOMENDIOAK

Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko ikasleek, gelan oinarritako kontzeptuak landu ondoren, herriko San Martin parkera joan eta ingurunea aztertu dute, biodibertsitatean arreta jarritz. Fauna eta floraren diagnostiko xehea osatu dute gazteek eta parkeko aniztasunaz jabetuta, berau baloratzeko, babesteko eta hobetzeko neurriak proposatu dituzte. Tartean, zuhaitz gehiago landatzea, espezie ezberdinak ongi identifikatzea, zelai zabal bat egokitzea, haritzaren enbor hilak mantentzea, bizilekuak egitea hegazti, saguzar, triku eta intsektuentzako... Maiatzean, gomendio sorta aurkeztu zioten alkateari, parkea biziberritzeko udalbatzak kontuan izan ditzan.

BASO ESKOLA, UGARITZEN ARI DEN EREDUA

Basoa bera ikasgela duten eskolak erroto-tutako eredua dira Europa iparraldean (1.000 baso eskola baino gehiago daude Alemanian, esaterako) eta Euskal Herriera ere iritsi da zipriztinik. Ozaetan, hiru ikasturte daramatzate curriculumeko edukiak inguru naturalean lantzen, gela itxi baten beharrik gabe: inguruko 20 ikasletik gora hartzen dituzte Plisti Plasta heziketa gunean. Bihotz Inguru Elkarteak berriz, hirian bizi arren naturan hazi daitekeela frogatu nahi du: Donostiako Uli basoan, duela lau urte jaio zen baso jolasgunea, 3-6 urte arteko haurrei zuzendua. Datorren ikasturte-tik aurrera, astelehenetik ostiralerako hezkuntza proposamen normalizatua abiatuko dute bertan, “gure txikien garapenerako benetako beharrak ase eta errespetatuko dituen pedagogia” aplikatu asmoz. Orendainen ere, antzeko ekimena dute buruan.



Ekoguneko baso eskolan, haurrek buzo bereziak daramatzate soinean.

Baso eskolen eredua gizarteratzeko eta hezkuntza publiko osora eskaintza zabaltzeko xedez, proiektu anbiziotsua abiatu dute Ekogunean. Hiru ikastetxe publiko ari dira parte hartzen aurre-proiektu pilotuan: Hernaniko Langile, Donostiako Amara Berri eta Alkizako eskola txikia. 3-5 urteko haurrak ari dira, egiten duen eguraldia egiten duela kanpoan jardun ahal izateko arropa jantzita (ikusitako argazkia). “Lehenengo, espazio berriko oinarriak azaltzen ditugu –kontatu digu Maialen Sistiagak-. Adibidez, zuhaitz bat aukeratzen dute ikasleek, galduz gero erreferentziatzen hartzeko. Egunaren hasieran, bildu egiten gara, ikasgelan egingo luketen moduan eguneko gaiez hitz egiteko eta bide batez naturari lotutako kontuez mintzatzeko (ze eguraldi egiten du, nola daude lore eta zuhaitzak, zein urtortan gaude?...). Gelako dinamika jarraitzen dugu, baina naturan eta naturara egokitu. Paperean beharrezko makilarekin lurrean margotu dezakete edota horma-barrara igo ordez, zuhaitzera igo daitezke. Uztartzen ditugu jolas libre eta jarduerak gidatuagoak (baratzera edo animalien gunera goazenean, adibidez)”. Etorkizunean, hala nahi duten eskolek ikasturte osoa egunero baso eskolan klasea ematea da helburua, inguruan dituzten berdeguneak baliatuz. Metodologia aukeratzen duten ikastetxeek aholkularitza eman nahiko lieke Ekoguneak, eta horregatik du martxan esperientzia pilotu hau.



EGIA SEGURUA HAURREN EGIA

Egiako auzokideek elkarlanean egindako labirintoa.

UTIKAN JOLAS-PARKE GRIS ETA TRISTEAK

Jolas-parke naturalagoak eskatzen dituzten mugimenduek sustatuta, material birziklatuek eta naturak berak eskaintzen dituen baliabidez hornitutako parkeak aurki daitezke, haurrek aske jolasteko pentsatuak. New Yorkeko play-groundNYC edo Galesko Plas Madoc abentura parke itzeletaraino joan gabe, inguruan ere badira adibide interesgarriak, Amurrioko Tertanga jolasgunea edo Lakuntzakoa kasu, umeen euren ekinetik sortuak. Berriki, inguruko haurren proposamenetatik abiatuta, labirintoa egin dute Atotxako parkean (Egia, Donostia), bizilagunek, hainbat ikastetxetako ikasleek eta zenbait erakundek elkarlanean. ■